



AFGANISTANTEN AURKAKO ERASOA

Kabul hartu, eta Kandaharrera abiatu da Iparraldeko Aliantza

Talibanek ez diote oso gogor egin hiriburuan, eta beren gune indartsuena defenditzera abiatu dira

Kabul hartu ondoren, Afganistango oposizioko Iparraldeko Aliantzak gobernua osatu nahi du, talibanik gabe. Horretarako, tribuei dei egin die gobernu horretan parte har dezaten, eta Nazio Batuei prozesuan laguntzeko eskatu die. Orain, Kandaharrera abiatu dira, talibanen gune indartsuenera. Mendebaldean begi onez ikusi dute oposizioko indarren aurrerapausoa, baina beldur dira Afganistanen botere hutsunea gertatuko den. /23-29



Oposizioko Iparraldeko Aliantzako indarrek itxita daukate Kabulgo errepide nagusia tankeekin eta beste ibilgailu batzuekin.



AL JAZIRA

EEBBetako indarrek Qatarako katearen Kabulgo egoitza birrindu dute bonbardaketan

ETXE ZURIA

Washingtonen esan du gerra ez dela amaitu, eta soldadu batzuk dauzkala Kabul

SEGURTASUNA JUSTIZIAN

EAEen jarduten duten magistratu, epaile eta fiskal guztiek bizkartzainak izango dituzte aurrerantzean

EAEko Auzitegi Nagusiak «lehenbailehen» indarrean ikusi nahi du atzo Madrilek eta Gasteizek hitzartutako Segurtasun Plana

Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia alorreko ardura-dunek EAEko magistratu, epaile eta fiskalei eskolta emateko Segurtasun Plana onartu zuten atzo, azaroaren 7ko atentatuaren ostean egingako bileran. /6

UNIBERTSITATEA

Euskal Herrirako unibertsitatea aldarrikatu dute ehunka lagunek EHU eta NUPen

ELA, LAB eta EILAS sindikatuak deituta, hainbat elkarretaratze eta manifestazio egin zituzten atzo Hegoaldeko campusetan. Irakas-kuntza eta euskalgintzako erakundeetako ordezkariak ere bat egin zuten deialdiarekin. Gaur, berri, ikasleek deitu dute gребara. /12-13



JOSU ETXEBARRIOSTE

Leioako unibertsitatean atzo egin zen manifestazioa.